



Fundazioa
Colegio Oficial de Médicos de Gipuzkoa

Barne Araudia

GIPUZKOAKO SENDAGILEEN
ELKARGO OFIZIALEKO FUNDAZIOA

AURKIBIDEA

Sarrera	3
Fundazioko kideak	4
Fundazioaren prestazioak: laguntza sozialak	4
Prestazioak eskatzeko administrazio-prozedura	6
Prestakuntza-ekintzak	6
José M ^a Begiristain saria	7
Patronatua: Funtzioak	9
Osaera	10
Batzordeko karguak	10
Patronatuaren bilerak	12
Urteko jarduketa-programa	14
Aurrekontua	14
Fundazioaren xedeak	14
Ondare-zuzkidura eta beste finantza-eragiketa batzuk	15
Azken xedapenak	16

SARRERA

FUNDACION COLEGIO OFICIAL DE MEDICOS DE GIPUZKOA/ GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALEKO FUNDAZIOA irabazi asmorik gabeko erakundea da, Manuel Fernando Cánovas Donostiako Notarioaren aurrean 2011ko martxoaren 28an eraturakoa, bere protokolo 373 zenbakiarekin. Fundazioa Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren Gobernu Batzordearen 2011ko urtarrilaren 25eko akordioaren eta Batzar Nagusiaren 2011ko martxoaren 23ko Erabakiaren arabera eratu da eta Eusko Jaurlaritzako Fundazioen Erregistroan F300 zenbakiarekin dago erregistratua. Fundazioak nortasun juridiko propioa du eta autonomia funtzionala izango du Estatutuetako 3. artikuluan jasotako fundazioko xedeak betetzeko, Patronatuko kideek egokitzen jotako moduan garatuko direnak, baldin eta Estatutuen arabera urtero erabakiko diren urteko jarduketak-programak gauzatzeko behar duen zuzkidura badu.

Fundazioko Patronatua, Estatutuetako 9. eta 10. artikuluek dioten bezala, urtean lau aldiz bilduko da, gutxienez, aurrez deialdia eginda. Bilera horietako bat, ohikoa, urteko lehen hiru hilabeteetan egingo da, urteko programak eta ekitaldirako zuzkiduren xedea onartzeko.

Ohiko bilera horretan, Patronatuak aurreko urteko Memoria, Kontua eta kudeaketaren emaitza finantzarioak aztertuko ditu, eta jarraian horiek guztiak onartuko ditu edo ez ditu onartuko.

Estatutuetako 23. artikuluan xedatutako bilerez aparte, Fundazioak ezohiko bilerak egingo ditu Lehendakariak berriaz deialdia egiten duenean, eta bilera horretan, deialdiko gai espezifikoak jorratuko da.

Sendagileen Elkargoak Fundazioaren lana hedatu behar du eskura dituen baliabide guztien bitartez, elkargokideei eta horien familiei Fundazioak ematen dizkien prestazioei buruzko informazio zehatz-mehatz helaraziz.

FUNDAZIOKO KIDEAK

Fundazioko kide izateko, ezinbesteko baldintza izango da Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko mediku kolegiatua edo plantillako enplegatua izatea, baldin eta azken horiek Fundazioko kide izatea euren borondatez erabaki badute.

FUNDAZIOAREN PRESTAZIOAK

PRESTAZIO SOZIALAK

Garai bateko “Elkargoko Sorospen Kutxa” deiturikoan Fundazioko kidea hiltzen zenerako onuradunentzako ezarriak zeuden laguntzekin jarraitzeko konpromisoa hartzen du Fundazioak.

Fundazioak heriotzagatiko prestazio bakarra emango du hildako elkargokidearen onuradunen alde, diru-kopuru jakin bat, hain zuzen ere.

Fundazioa da laguntzak esleitzeko ezartzen diren irizpideen organo arduraduna, eta baita laguntza horien zuzkidura ekonomikoa ezartzekoa ere. Laguntzaren zenbatekoa urtero berrikusi ahal izango da.

Erabaki horiek hartzeko, egoki iruditzen zaizkion kolaboratzaile, teknikari edo enplegatuen aholkua eska dezake Fundazioak, baina horrek ez du esan nahi bere subiranotasunezko prerrogatibari uko egin behar dionik.

Laguntza horretarako eskubidea izan dezakete honako baldintza hauek betetzen dituzten elkargokideen onuradunek:

Baldintzak

1. Heriotza-datan Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialean alta emanda egotea.

2. Elkargokidea eguneratuta egotea kuoten eta Elkargoko gainerako kargen ordainketan. Ohorezko elkargokideak ere eguneratuta egon behar du dagokion kuotaren ordainketan.
3. Elkargoan baja emateak prestazioen eskubidea galtzea ekarriko du berekin.
4. Fundazioko kideak Barne Araudia onartzen du bere onurak gozatu ahal izateko, eta baita Fundazioaren eta Patronatuaren erabakia ere. Erabaki horren aurrean ezingo du inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Onuradunak

1. Fundazioko kideak idatziz adierazi beharko du nor den edo nor diren bere onuradunak. Hori egin ezean, ordenan esleituko zaie izaera hori lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako familiartekoei.
2. Ezingo dute onuradun izan merkataritza-sozietateek, ezta irabazi asmoa duen beste edozein erakunde edo korporaziok ere.
3. Hainbat onuradun izendatuz gero, elkargokideak adierazi beharko du horietako bakoitzak zer proportziotan jaso behar duen prestazioaren zenbatekoa. Hori jasota ez badago, zati berdinetan banatuko da izendatutako onuradun guztien artean.
4. Izendapenak noiznahi baliogabetu ditzake elkargokideak, eta heriotzaren aurretik egindako azkenak joko dira baliozkotzat.
5. Izendatutako onuraduna Fundazioko kidea baino lehen hilko balitz eta horrek beste izendapenik egingo ez balu, lehen ezarritako lehentasun-ordena aplikatuko litzateke.

Epeak eta iraungipena

1. Medikusuzko kausatzailearen heriotza gertatu eta hamabi hilabete igaro ondoren Elkargoak prestazioa emateko eskaera egin gabe badago oraindik, prestazioaren eskubidea iraungi egingo da.
2. Aitortutako prestazioa onuradunari eman zaiola jakinarazi eta sei

hilabetera iraungiko da, eta hamabi hilabetera, berriz, onuraduna leku ezezagunean egoteagatik prestazioa eman izana jakinarazi ezin izan denean.

FUNDAZIOAREN LAGUNTZETARAKO ADMINISTRAZIOKO BARNE-PROZEDURAREN SISTEMA

Onuradunen laguntza-eskaera idatziz egingo zaio Fundazioari eta Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren egoitzan aurkeztuko da. Elkargoak espedientea irekiko du, kasu horretarako Fundazioak ezarri duen dokumentazioarekin. Espedientea Elkargoaren nahitazeko txostenarekin batera igorriko zaio Fundazioari eta Fundazioak kopia bat gordeko du.

Fundazioko Patronatuak egiten diren bileretan jasotako espedienteei buruz ebatziko du eta haren erabakiek hartzen diren une beretik aurrera izango dute efektua.

Fundazioaren laguntzak jasotzeko eskaerak xede horretarako ezarritako inprimakian egin, oso-osorik bete eta Gipuzkoako Sendagileen Elkargoan aurkeztu behar dira. Elkargoak espedientea ireki beharko du eta haren kopia gordeko du Fundazioak kasu horretarako ezarrita duen dokumentazioarekin batera.

PRESTAKUNTZA

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko Fundazioaren helburu nagusietako bat gure probintzian elkargokide diren mediku guztiei zuzendutako prestakuntza-jarduerak sustatu, kudeatu eta koordinatzea da. Honako jarduera hauek garatuko dira:

PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK: Ikastaroen eskaintza aldiro-aldiro eta behar adinako aurrerapenarekin argitaratuko da Elkargoko web-orriaren irakaskuntza-jardueren atalean eta Elkargoaren zirkularretan. Fundazioaren bitartez kudeatuko da programatutako ikastaro guztien akreditazioa, eta

horren berri, kredituen berri eta irakastorduen berri emango da diploma egiaztatzailean, haiek gainditutakoan.

BILERA ZIENTIFIKOAK: osasun eta giza intereseko gaiei buruzko zientzia-eta dibulgazio-izaerako mintegiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, etab.

Fundazioaren antzeko prestakuntza-jarduerak abian jartzeko interesa duten sozietate zientifikoekiko LANKIDETZA.

SARIAK: Ikerketa sustatzeko asmoz, Fundazioak sariak deitu ditzake, esaterako, poster formatuko komunikazio onenarentzat, zientzia-arloko artikulua onenarentzat, etab. Baita espediente onenak dituzten elkargokideen seme-alabentzako sariak ere.

Halaber, prestakuntza-ikastaroei dagokienez eta gure probintziako mediku eta lantalde guztiek prestakuntza-jarduera horietara joateko eta jarduera horiek antolatzeke duten interes handia kontuan hartuta, inkestetan balorazio onena jaso duen ikastaroaren antolatzaileak urtero saritzeko konpromisoa hartzen du Fundazioak.

PRESTAKUNTZA-PREMIAK DETEKTATZEA: Horretarako, Fundazioa irekita dago bere sailetakoren batek edo edozein elkargokidek formacion@gisep.org helbide elektronikoaren bitartez egindako prestakuntza-arloko edozein iradokizuni erantzuteko.

JOSE MARIA BEGIRISTAIN SARIA

José M. Begiristain sariaren Patronatua Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Fundazioan txertatu ondoren, sariaren urteko deialdia egiten jarraituko dute, orain arte egiten zen bezala, Patronatuaren Estatutuetan adierazitako prozedurari jarraituz.

Begiristain sariaren funtzionamendu-erregimena

1. Urtean behin deituko da, kideei egokiena iruditzen zaien datan.
2. Deialdiaren eta lanen entregaren artean 6 hilabete igaroko dira, gehienez ere.
3. Lanak jasotzeko azken egunaren eta erabakiaren artean 3tik 6 hilabetera bitarteko epea egongo da.
4. Sariaren epaia eta sariak ematea urte osoko egutegiaren barruan data jakin eta aipagarri batean egin daitezten, askatasunez finkatuko da deialdiaren data.
5. Lanak originalak izango dira, aurrez argitaratu gabeak eta beste lehiaketa batean aurkeztu gabeak.
6. Lanak aurkezteko onartuko den hizkuntza bakarra euskara izango da.
7. Lanak hiru kopiatan aurkeztuko dira gutun-azal itxian eta ezizenarekin, eta beste kopia bat euskarri elektronikoan. Gutun-azalaren barruan, lanarekin batera, beste gutun-azal itxi bat sartuko da, kanpoan ezizena edo goiburua daramana, eta gutun-azal horren barruan egilearen edo egileen izena edo izenak eta helbide bat agertuko dira. Azken gutun-azal hori José Begiristain sariaren Idazkariaren eskuetan geratuko da.
8. Lanaren hedadura lerro arteko tarte bikoitzarekin idatzitako 15 foliokoa izango da, gutxienez, eta hogeita bost foliokoa gehienez ere, bibliografia, grafikoak eta taulak kontuan izan gabe.
9. Patronatuko kideak urtean 3 aldiz bilduko dira, gutxienez. Lehen aldiz sariaren deialdia egiteko eta zenbatekoa erabakitzeko, Fundazioko kideekin batera. Bigarren aldiz harrera-epea amaitutakoan, epaimahaiko kideak izendatzeko. Eta hirugarrenez, epaimahaiaren epaia jaso eta emaitza jakinarazteko.
10. Patronatuko kideek saritutako lana argitaratzeko behar diren neurriak hartuko dituzte, eta JOSE BEGIRISTAIN SARIA azalduko da beti argitalpenaren goiburuan.

11. Lanak Fundazioaren jabetzan geratuko dira, eta horrek Sendagileen Elkargoari laga diezazkioke.

PATRONATUA: FUNTZIOAK

Fundazioaren Estatutuetan ezarritako eskumenez gain, honako funtzio hauek ere izango ditu:

1. Fundazioaren politikak ezartzea.
2. Haren egitura administratiboa sortzea, bere eraginkortasunerako beharrezkotzat jotzen dituen Sail eta Unitateekin.
3. Fundazioaren urteko lan-programa kontsideratu eta onartzea (Plan Operatiboa).
4. Urteko programak bete eta kontrolatzeko beharrezkotzat joko balitz, langileen kontratazioak kontsideratu eta onartzea.
5. Finantza-baliabideen inbertsioari eta kokapenari buruz ebaztea.
6. Ondasun higigarrien edo higiezinaren, horrelakorik balego, jabetzea, besterentzea edo zergapetzea ebaztea, Fundazioaren Estatutuetan ezarritakoa aurreikusiz.
7. Fundazioaren eraginkortasun egokirako Arauak eta Prozedurak aztertzea eta onartzea.
8. Fundazioko kideek aurkezten dizkieten eta Fundazioaren funtzio espezifikoek berezkoak dituzten gaiak aztertzea eta haiei buruz erabakitzea.
9. Urteko lehen bileran onartutako urteko programez aparte, handitu egin ditzakete, aurrez programa horiek justifikatu eta oinarritu ondoren, baina Estatutuetako 3. eta 7. artikuluetan jasotako fundazioko xedeak errespetatuz betiere.
10. Fundazioak, berariazko ebazpenaren bitartez, aurreko artikuluan aipatutako edozein eskumen Lehendakariari eskuordetu diezaiolke.

PATRONATUA: OSAERA

1. Fundazioko Gobernu Batzordea hiru kidek osatuko dute gutxienez eta zazpik gehienez. Nahitaezkoa izango da batzordekideen erdiak baino bat gehiago Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Zuzendaritza Batzordeko kideak izatea.
2. Gainerako kideak Fundazioak proposa ditzake gobernu-organo goren gisa. Fundazioak Sendagileen Elkargoko Zuzendaritza Batzordeari egingo dio proposamena, haiek Fundazioko kide izendatzeko, Fundazioaren Estatutuetoako 11. artikuluaaren arabera Zuzendaritza Batzorde horrek duelako horretarako ahalmen osoa. Fundazioak, bestalde, betoa jar diezaioke izendapenari. Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Zuzendaritza Batzordeko kide ez izan arren, egindako lanagatik edo ekarpen ekonomikoengatik Fundazioari lankidetzatza eta laguntza emateagatik nabarmendu diren pertsona fisiko, instituzio eta erakundeak izan daitezke Patronatuko kide.
3. Sendagileen Elkargoko Zuzendaritza Batzordeko kideen karguaren iraupena legealdiari dagokiona izango da. Lehendakari, Idazkari eta Diruzain karguak Fundazioko eta Zuzendaritza Batzordeko kideek soilik har ditzakete. Elkargoko Zuzendaritza Batzordeko kide izateari uzten diotenean, Fundazioko kide soil bihurtuko dira aurrerantzean.
4. Zuzendaritza Batzordeko kide ez diren Patronatuko kideen karguaren iraupena lau urtekoa izango da, eta kargua modu berdinean berritu dezakete ondorengo aldietan.

PATRONATUA: KARGUAK

Lehendakaria

Estatutuetoako 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, Fundazioko lehendakaria da haren legezko ordezkaria eta Patronatuko kide bati eskuordetu diezazkioke, aldi baterako eta Fundazioaren baimenarekin, eman zaizkion estatutu-ahalmenak.

Honako zeregin hauek izango ditu bere eskumenen esparruan:

1. Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Lehendakaria informatzea denboraldi horretan izandako diru-sarrera eta gastuei buruz.
2. Fundazioaren funtzionamenduan ikusten duen edozein anomaliaren berri Sendagileen Elkargoko Lehendakariari ematera behartuta dago. Kasu horretan, Elkargoko Zuzendaritza Batzordeak ikusitako anomaliak argitzeko behar diren datuak eska diezazkieke Fundazioko kideei, eta horiek berretsiko balira, Elkargoko Zuzendaritza Batzordeak haiek zuzentzeko neurriak hartuko lituzke, dagozkion erantzukizunak eskatzearen kalterik gabe.
3. Fundazioaren onerako izango den edozein ekimen proposatuko dio Sendagileen Elkargoko Lehendakariari, eta baita egokitzat jotzen dituen aldaketak eta hobekuntzak ere.
4. Estatutuetan ezarritako eskumenez gain, Lehendakariaren zereginak izango dira eguneroko kudeaketa, barne-arau administratiboak ematea eta urteko programak betetzeko kontratatutako langileen edo profesionalen ordainsariak finkatzea, Fundazioak ezarritakoaren arabera. Pertsona fisikoei edo erakundeei agintzen zaizkien zereginen arabera egin beharreko ordainketak Fundazioak onartuko ditu.

Idazkaria

1. Fundazioko Zuzendaritza Batzordeak Idazkari bat izango du, hark izendatutakoa. Idazkari horrek saio guztien akta jaso eta hartutako erabakiak prozesatuko ditu. Patronatuaren saio guztien akten ordenamenduaz ere arduratuko da, Eztabaidako zuzendari edo moderatzaile lana ere egin dezake Lehendakariak eskuordetuta eta Fundazioak jakinarazi beharreko komunikazio eta jakinarazpenak Elkargoko Zuzendaritza Batzordeari igorriko dizkio.
2. Hildako medikuen onuradunei dohaintzak egin behar zaizkienean, hildako medikua Fundazioko kuotetan eguneratuta dagoela

egiaztatzen duen ziurtagiria eskatuko dio Elkargoko idazkariari.

3. Urteko memoria idazteaz arduratuko da.

Diruzaina

Fundazioak, egoki baderitzo, honako funtzio hauek izango dituen Diruzaina izenda dezake bere kideen artean edo kideetatik kanpo:

1. Fundazioaren funtsak biltzea eta zaintzea.
2. Diru-sarrera eta gastuen balantzea aurkeztea eta sinatzea.
3. Inbentario, Kontu eta Aurrekontuen Liburuez arduratzea.

PATRONATUAREN BILERAK

1. Fundazioko Zuzendaritza Batzordeak ohiko eta ezohiko bilerak egin ditzake. Ohiko bilerak egingo ditu Fundazioko Lehendakariari beharrezkoa iruditzen zaion guztietan, aurrez finkatutako egunetan, Fundazioko Estatutuetako 23. artikuluan ezarritako gutxieneko bilera-kopurua errespetatuz betiere, eta ezohiko bilerak, berriz, Lehendakariak deituta edo Patronatuko hiru kideek eskatuta.
2. Ohiko bileretarako nahiz ezohikoetarako deialdiak kide guztiei jakinarazi behar zaizkie, bileraren data baino hamar egun lehenago, gutxienez, eta dagokien gai-zerrendarekin batera igorriko dira, Estatutuetako 23. artikulua dioenaren arabera. Hala ere, kasuaren urgentziagatik Lehendakariari epe hori gehiegizkoa iruditzen bazaio, Estatutuetako 23. artikulua aipatzen duen 10 edo 3 eguneko epea errespetatu gabe egin dezake deialdia posta elektronikoko bidez, eta urgentzia eragiten duen gaia soilik jorratuko da.
3. Lehendakariak ezarritakoez gain, Patronatuaren ohiko bileretako gai-zerrendan puntu finkotzat joko dira honako hauek ere: aurreko akta(k) kontuan hartzea, Lehendakariaren txostena, finantza-txostena eta, azkenean, eskaerak eta galderak.

4. Patronatuaren gai-zerrenda elkarrekin prestatuko dute Lehendakariak eta Idazkariak. Laguntza-materialak edo euskarriak behar dituzten puntuen kasuan, Idazkaritzan utzi beharko dituzte material horiek bilera baino 48 ordu lehenago, agendan sartu ahal izateko.
5. Patronatua balio osoz eratuta geratuko da kideen erdiak baino bat gehiago bertaratzen direnean, eta nahitaezkoa izango da Lehendakaria eta Idazkaria edo Diruzaina bertan egotea. Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, Estatutuetoako 24. artikulua aipatzen dituenak izan ezik.
6. Patronatuaren saioek Fundazioko Lehendakaria izango dute buru eta deliberazioetan erregimen parlamentarioa aplikatuko da. Lehendakaria falta denean, Diruzaina, Idazkaria edo Lehendakariordea, kargu hori balego, izango litzateke buru.
7. Lehendakariak edo Patronatuak Fundazioz kanpoko jendea, Fundazioaren kolaboratzaileak, Elkargoko Zuzendaritza Batzordeko kideak edo beste edozein pertsona gonbida dezakete bileretan parte hartzera, hitz egiteko eskubidearekin, agendako puntu espezifikoak jorratzeko.
8. Patronatuak Aholkulari izenda ditzake Fundazioko kide izan diren pertsonak eta Sendagileen Elkargoko aholkulari izan direnak. Elkargoko Lehendakariari eska diezaiokete Elkargoko aholkulari izandakoren bat edo gehiago Fundazioko aholkulari ere izatea, Fundazioko Lehendakariaren esanetara egongo direnak. Izendatutako aholkulariek Fundazioak eskatutako txosten eta dokumentuak beteko dituzte, agindutako kudeaketak egingo dituzte eta, Patronatuak edo Lehendakariak agintzen dienean, bileretara joango dira, bertan hitz egiteko eskubidearekin.
9. Idazkariak akta jasoko du saio bakoitzean, behar bezala zenbakitutakoa, bileran jorratutako puntu guztiak jasoko dituena.

10. Behin onartu ondoren, Lehendakariak eta Idazkariak sinatuko dute akta. Fitxategi sekuentzian akta-liburua txertatuko da, Patronatuko Idazkariak zainduko duena.

URTEKO JARDUKETA-PROGRAMA

Fundazioko Zuzendaritza Batzordeak hurrengo urtean gauzatuko den jarduketa-programa aztertu eta onartuko du. Programa hori Fundazioko Lehendakariak aurkeztuko du eta urte horretan bete beharreko helburuak eta xedeak, Fundazioak eskatutako egitura- eta eragiketa-aldaketa guztiak eta bere funtzioak hobeto betetzeko garatuko diren jarduera guztiak hartu beharko ditu kontuan.

Fundazioak onartutako urteko jarduketa-programak aldaketak izan ditzake, behin erakunde eskudunek aurrekontuaren urteko kuota finkatzen dutenean.

AURREKONTUA

Fundazioko Lehendakariak, behin programa onartutakoan, Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Zuzendaritza Batzordearen ardurapean utziko du bere tutoretza-erakundea den Sendagileen Elkargo Ofizialari aurkeztu beharreko aurrekontuaren kuota-eskaera. Sendagileen Elkargo Ofizialak zehaztu eta erabakiko du elkargokide bakoitzak ordaindu beharreko kuota arrunta.

Dagokien erakundeek aurrekontuaren kuota finkatu eta onartzen dutenean, Fundazioak aztertu eta onartu behar du aurrekontu-proiektua.

FUNDAZIOAREN XEDEAK

Fundazioko Patronatuak urteko jarduketa-programa bakoitzean zehaztu eta onartuko ditu eskaini beharreko laguntzak eta horien gutxi gorabeherako zenbatekoak, onartutako zenbateko horiek nahikoa ez izanez gero ekitaldi ekonomikoan handitu ahal izatearen kalterik gabe.

Ondorio horietarako, handitzeko datu justifikatzaileak jasotzen dituen txostena aurkeztuko dio Lehendakariak Fundazioari, eta Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko zaio. Batzordeak betoa jar diezaike handitze horiei, hildako medikuen onuradunentzako kontu-sailari izan ezik.

ONDARE-ZUZKIDURA ETA BESTE FINANTZA-ERAGIKETA BATZUK

Elkargoko Sorospen Kutxa izenarekin bankuan gordetako eta, erakunde fundatzaile gisa, Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialak ekarritako inbertsio-funtsek eratuta dagoenez hasierako ondare-zuzkidura, Fundazioak funts horien kokapen finantzarioak aztertu, onartu eta alda ditzake ahalik eta errendimendu handiena lortzeko.

Legez baimendutako beste modalitate batzuetan inbertitu ahal izango du eta baita tituluak/baloreak eskuratu ere, baina finantza-eragiketa horien segurtasuna uneoro lehenetsiz. Kasu horretan, Sendagileen Elkargoko Lehendakariari jakinaraziko zaio aurretik. Lehendakariak Sendagileen Elkargoko Zuzendaritza Batzordearen erabakipean utziko du eta Zuzendaritza Batzordeak, ekarpena egiten duen fundatzaile gisa, aldaketari betoa jar diezaike. Ondorio horietarako, Fundazioko Lehendakariak txostena aurkeztuko du, proposatutako eragiketari buruzko datu guztiak jasotzen dituena.

Aurreko artikuluan aipatutako finantza-eragiketak gauzatzeko behar diren lege-xedapenak betetzeko asmotan, bankuak eta Sendagileen Elkargoko kontabilitate-aholkulariak edo kanpoko aholkulariak egindako txosten ekonomikoa aurkeztuko da.

Elkargokideek Fundaziorako ordaintzen dituzten kuoten bidez Fundazioari egindako urteko ekarpenak Ohiko Batzar Nagusian onartuko ditu Elkargoak

eta, behin bildutakoan, Fundazioaren kontuan sartuko dira edo haren kontura traspasatuko dira.

Kasu batean zein bestean, Sendagileen Elkargoko Lehendakariari aditzera emango zaio egindako funts edo inbertsioek sortutako ekarpen eta errendimenduei zer erabilera eman zaien.

Funtsak bankuetako kontu korranteetan edo beste banku kaudimendun batzuetako beste aurrezpen-modalitate batzuetan gordailututa egongo dira, eta Estatutueta 3., 4. eta 7. artikuluetan adierazitako xedeetarako soilik erabili ahal izango dira.

Elkargoko Zuzendaritza Batzordeak aldaketa horiek gauzatzen dituenean, Fundazioko Diruzainak baimenduko ditu Lehendakariaren sinadurarekin eta Idazkariak egindako ziurtagiriarekin.

AZKEN XEDAPENAK

Fundazioak urteko jarduketa-programen, dohaintza eta diru-laguntzen kontrolaren, onartutako programaren kontura egiten diren prestakuntza-ikastaroen eta osasun-laguntza eskaintzen duten GKEentzako laguntzen etengabeko ebaluazioa egingo du, horiek baitira Fundazioaren funtsezko helburuak, eta jarduketa horiek sendotu eta hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen gomendioak egingo dizkio erakunde fundatzailea den Sendagileen Elkargori.

Sendagileen Elkargoko Zuzendaritza Batzordearen adostasuna lortu ondoren, Borondatezko Bizi Aseguru Kolektibo bat sina dezake Fundazioak, hildako elkargokidearen onuradunei ordaintzea erabaki duen urteko laguntzaren zenbatekoa ordainduko diena.

Aseguru horrek ordaindu beharreko primak ezin du gainditu elkargokideek Fundazioari ordaindutako urteko kuoten zenbatekoa.

Araudi honetan aurreikusita ez dagoena Fundazioak ebatziko du gehiengo soil bidez onartutako erabakian.